

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2021/2022 ikasturtea

Proiektu musiko-sozialen eragina gazteen artean

Ikaslea: Páez Alonso, Asier.

Irakaslea: Arriaga Sanz, Cristina.

Leioan, 2022ko ekainaren 3an.

AURKIBIDEA

Sarrera	3
1. Marko teorikoa	4
1.1. Musikaren garrantzia hezkuntzan eta gaur egungo egoera	4
1.1.1. Zergatik musika hezkuntza?	4
1.1.2. Musika hezkuntzaren eboluzioa	5
1.1.3. Musika lege organikoetan	6
1.2. Musikaren garrantzia gaur egungo jendartean	7
1.3. Musika komunitarioa eta proiektu musiko-sozialak	9
1.3.1. Zer da ?	9
1.3.2. Zertan datza?	9
1.3.3. Nortzuk parte hartzen dute?	10
2. Helburuak	11
3. Metodologia	12
4. Lanaren garapena	12
4.1. Proiektu musiko-sozialen testuingurua	12
4.2. Parte hartzaileak	14
4.3. Instrumentua	15
4.4. Elkarrizketen analisisa eta interpretazioa	15
5. Ondorioak	23
6. Etika profesionala eta datuen babesa	24
7. Erreferentzia Bibliografikoak	25

Lan honetan, musika komunitatean lantzeak, gizarte-gaitasunak eskuratzeko, eta, hauek norbanakoaren ongizate pertsonalean duten eragina aztertu egin da. Era berean, musika taldean praktikatzek, komunikazio-loturak sor ditzakeela, pertsonen arteko ulermena hobetu dezakela eta gizartearen eraldatzen lagundu dezakeela hauteman da. Horretarako, hiru proiektu musiko-sozialetan parte hartzen duten sei pertsona elkarrizketatu dira, ikerketaren oinarria, elkarrizketa kualitatiboak egitea izanik. Elkarrizketetatik ateratako emaitzak kontuan hartuta, ikasleak, proiektu musiko-sozialei esker, onura sozial eta pertsonalak izan dituzte. Gainera, musika komunitarioren esperientziak, eragin positiboa dauka inklusioan, talde lanean eta kulturartekotasunean.

Musika komunitarioa, gizarte gaitasunak, talde lana eta kulturartekotasuna

En este trabajo se ha analizado la influencia de la música en la comunidad para la adquisición de capacidades sociales y su incidencia en el bienestar personal del individuo. Asimismo, se ha detectado que la práctica musical en grupo puede crear vínculos comunicativos, mejorar la comprensión interpersonal y contribuir a la transformación de la sociedad. Para ello, se ha entrevistado a seis personas que participan en tres proyectos musico-sociales, basándose la investigación en la realización de entrevistas cualitativas. Teniendo en cuenta los resultados obtenidos de las entrevistas, el alumnado, gracias a los proyectos músico-sociales, ha tenido beneficios sociales y personales. Además, la experiencia de la música comunitaria tiene un impacto positivo en la inclusión, el trabajo en equipo y la interculturalidad.

Música comunitaria, capacidades sociales, trabajo en equipo e interculturalidad

In this work, we have analyzed the influence of music in the community for the acquisition of social capacities and its impact on the personal well-being of the individual. Besides, group music practicing can create communication links, improve interpersonal understanding and contribute to the transformation of society. For this, six people who participate in three musico-social projects have been interviewed, based on the research on qualitative interviews. Taking into account the results obtained from the interviews, the students, thanks to the musician-social projects, have had social and personal benefits. In addition, the experience of community music has a positive impact on inclusion, teamwork and interculturality.

Community music, social skills, teamwork and interculturality

Sarrera

La música es un mundo dentro de sí mismo, es un lenguaje que todos entendemos.

Stevie Wonder, abeslaria.

Lehenik eta behin, aipatu beharra dago, musikak, betidanik izugarrizko garrantzia duela nire bizitzan. Oso txikia nintzenetik, musika hezkuntza jaso izan dut, nire egunerokotasunaren barruan presentzia handia izanik. Izan ere, nire musikaren ikuspegia, hezkuntza formal batetik egon da beti bideratuta, hau da, derrigorrezko hezkuntzan edo kontserbatorioan. Hala ere, uste dut, musikak, hezkuntza ez-formalean garrantzia handia duela, eta musikaz at dauden beste jakintza batzuk eskuratzeko oso baliagarria dela. Stevie Wonderren aipuekin aurkeztu nahi izan dut lana, jendartean, musika, hezkuntzarekin lotzen den arren, bestelako hezkuntzak bezala, pertsonon garapenerako oso baliagarria delako.

Gauzak horrela, jakin badakit, musika hezkuntzak garrantzia handia duela gure jendartean. Azken finean, pertsona guztiak, nola edo hala musikarekin lotura bat dugulako. Hori dela eta, ezinbestekotzat ikusten dut, gaur egungo ikasleengan, musikak izan dezakeen garrantzia baita haietan duen eragina aztertzea. Hortaz, GRAL-ean, proiektu musiko-sozial desberdinetan parte hartzen duten ikasleen testigantzak jasotzeko, ikerketa kualitatibo bat burutuko dut, haien bizipenak proiektu hauetan sakontasun handiagorekin ezagutzeko.

Beraz, aurretik esandakoa kontuan hartuta, lan honetan, musika hezkuntzak egungo jendartean duen garrantzia aztertuko da. Gure abiapuntua, urteetan zehar izandako bilakaera izango da, eta komunitatean baloreak bultzatzeko eta gizarte baketsuagoa eta inklusiboagoa izateko duen eragina. Gainera, musika komunitarioa eta proiektu musiko-sozialen nondik norakoak aztertuko dira, eta hauek, lehen hezkuntzako ikasleengan duten eragina.

Jarraitzeko, esan bezala, aipatutakoa aztertzeko, hiru proiektu musiko-sozial desberdinetan parte hartzen duten 6 ikasle elkarriketatu dira. Elkarriketa hauetan, proiektuak esanahiaren inguruan, proiektuan zehar ikasitakoa, baita bizitako emozioak, sentazioak eta sentimenduen inguruan aritzen dira. Musikak beraien egunerokotasunean duen garrantziaz jabetzeko aukera izanik.

1. Marko teorikoa

1.1. Musikaren garrantzia hezkuntzan eta gaur egungo egoera.

1.1.1. Zergatik musika-hezkuntza?

Musikak gure hezkuntza sisteman egoteko beharra azaltzeko, lehenik eta behin, ezinbestekoa da aipatzea, musikak izugarrizko presentzia duela pertsonon eguneroko bizitzetan. Gainera, zehaztu beharko genuke, musika betidanik gizakion bizitzetan egon dela. Urteetan zehar gauzatu diren ikerketa eta azterlan desberdinen ondorioz, jakin dezakegu, historiaurrean bizi ziren gizakiak musikaren bidez adierazten zirela. Horrez gainera, musika tresna ezinhobea izan zela, talde baten barruan komunikatzeko mementoan (Alvarez, 2014).

Jarraitzeko, aipatu beharra dago, musikarekiko interesa ezaugarri biologikoa dela gizakien artean. Modu berean, musikala izatea, gure giza diseinuarekin dator, gure garapen musikala jaio aurretik hasten baita (Welch, 2005). Pertsona gehienek egunero entzuten dute musika, modu pasiboan, supermerkatuan edo iragarkietan, adibidez, edo aktiboan, guk aukeratzen dugunean. Musikaren entzuketa aktiboan parte hartzeak, musika-jarduerak berriro erabiltzeko joera sustatzen du (Blood eta Zatorre, 2001) eta hau positiboa da, adierazpen sortzailea eta afektiboa sustatzen dituelako, komunikazioaz eta auto-konfiantzaz gain (Brader 2011). Era berean, musika pertsonon ezaugarri bat da, bakoitzaren garapenean eta eboluzioan eragin zuzena duena. Ildo berean, aipatzekoa da, musikak, beste onura batzuen artean, ongizate psikologikoan laguntzen duela (Giráldez, Cabedo eta Arriaga, 2022).

Musika hezkuntza ere bada tresna indartsua gizartearen eraldatzeko. Azken urteotan eman diren proiektu musiko-sozial desberdinak azalean utzi dute, musika komunitatean ikasteak aukera zoragarria eman duela elkarrekin bizitzen ikasteko. Proiektu hauetan parte hartzen duten pertsonak, aukera ezinhobea izaten dute musikan murgiltzeko eta gainontzeko parte hartzaileekin batera musikaz gozatzeko. Horregatik, garrantzitsua da, gure eskolek eta gure irakasleek artea eta musika ikasteko, irakasteko, partekatzeko eta esperimentatzeko aukerak esploratzeko premiaren alde egitea, elkar ulertzeko, gatazkak modu baketsuan eraldatzeko eta eskolan bizikidetzaren sustatzeko modu berriak aurkitzeko (Cabedo eta Díaz, 2015).

Higgins (2012), musika komunitarioaren ikerketan aditu bat, erakunde musikalei formaletatik kanpoko interakzio musikaletan oinarritzen da, baita hezkuntza musikalei formalaren, ez-formalaren eta informalaren inguruneen arteko loturetan ere. Egile honek

azaltzen du, musika komunitarioko proiektuetan, musikari edo gidari profesionalak interesa duen edozein pertsonaren parte-hartzea sustatzen duela, eta eskubidea eta trebetasunak dituela musika komunitarioko proiektuetan parte hartzeko, kultura, errespetua, konfiantza eta motibazioa sortzeko eta gozatzeko, eta, horretarako, prozesuaz eta kultura-aniztasunaren aberastasunaz gozatzeko.

Gaur egun, sektore formalean zein ez-formalean musika-hezkuntza emateaz arduratzen diren erakundeek, gure garaiko gizarte eta kultura-erronkei aurre egitea eta horiek konpontzen saiatzea izango dute helburu (Cabedo eta Díaz, 2015). Hau guztia dela eta, ezinbestekotzat hartu beharko genuke, musika hezkuntza, alor formalean zein ez-formalean.

1.1.2. Musika hezkuntzaren eboluzioa

Garrantzitsua da azpimarratzea, musika hezkuntzan bizi dugun garapenean eta gaur egungo herritarrengan izan ahal duen eragin positiboa. Musika hezkuntzak, gure jendartearen izan duen bilakaerarekin hasteko, argi geratu behar da, XX. mendea aurkituz zein asmakuntzen garaia izan zela. Aipatutako mendea, psikoanalisiaren, espazio-hegaldien, erradioaktibitatearen, teknologiaren, informatikaren, ekologiaren, etab. mendea izan zen. Horregatik, esan ohi da, musika, hezkuntzaren ikuspegitik “metodo handien mendea” edo “musika hastapenaren mendea” izan dela (Gainza, 2004). Honen harira, aipatu genezake, bizitzako zenbait esparrutan bezala, teknologiak izugarritzko eragina izan duela musikan, arlo formalean zein ez formalean.

Ilde berean, musika hezkuntzak ere izan du bere garapena. Lehen urteetan, musikako irakasle espezialistak, musikaren osagaiak irakasten zituen, hau da, musika-tresnak eta ahots-teknikak garatzeko edukiak. Horren ondorioz, musika-irakaslea, hezkuntza estetikoaren alderdi musikalerara mugatu zen, zeharkako ardatzak indartzen lagundu gabe (Conejo, 2012). Gaur egun, ordea, musikaren bidez, zeharkako gaitasunak lantzearen garrantzia aipatzen duten egile asko daude, bai baloreak lantzeko (Conejo, 2012; Cabedo eta Arriaga, 2016) edo proiektuak egiteko (González-Martín eta Valls, 2018), adibide batzuk jartzeagatik.

Dena den, musikaren barruan azken hamarkadetan egon diren proiektu garrantzitsuenak musikaren garrantzia erakusteko, proiektu musiko-sozialak dira. Hauen inguruan geroago hitz egingo dugu.

1.1.3. Musika lege organikoetan

Beste herrialde batzuetan ez bezala, Espainian derrigorrezko musika-hezkuntzaren historia ez da oso zabala. Hogeita hamarreko hamarkadan musika hezkuntza antolatua zegoen Europan, baina Espainian ez zen horrela izan. Espainian 1970era arte ez zen sartu irakaskuntza orokorrean, hau lortu zen Villar Palasí legea egonda. Hemendik aurrera, musikak bere lekua hartzen joan zen. 1985ean, Hezkuntzarako Eskubidearen Lege Organikoak (LODE), Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Kontserbatorio eta Musika Eskoletan, musika eskaintza egotea arautu egin zuen (Pérez eta Leganés, 2012).

Hala ere, aldaketa nabarmenena, urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoan, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzkoan (LOGSE), eta maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan, Hezkuntzari buruzkoan (LOE) nabaritu egiten da. Aipatutako lege organikoetan, ikusten da, musika garrantzia hartzen duela eskoletako curriculumetan, derrigorrezko irakasgaia bihurtuz (Fernández eta Jorquera, 2017). Horrez gainera, lege honi esker, musikako irakasleak arlo guztietan prestatzea aurreikusten da (Calderón, 2017).

Orain arte egindako aurrerapenak, bertan behera gelditu egiten ziren, 2013an indarrean jarritako lege organikoarekin, LOMCE hain zuzen ere. Aipatutako azken lege organikoak, baldintzatu egin zuen musika hezkuntzaren irakaskuntza, ikastetxeen esku geratu baitzen. Zera da, ikastetxe bakoitzak eskaini edo ez eskaintzearen baldintzapean zegoen (Fernández eta Jorquera, 2017).

Lege organikoetan eman diren aldaketekin bukatzeko, egun indarrean jarri ez den arren, LOMLOE izeneko lege organiko berria, 2020an onartua izan zen lege berria da. Lege honetan, Bigarren Hezkuntzan, irakaskuntza artistikoarekin erlazionatuta derrigorrezko irakasgaia bihurtzea berreskuratu egin da, nahiz eta ordu batzuk galdu diren. Hala ere, irakaskuntza artistikoaren barruan, Plastika, Musika eta Dantza daudenez, hauen arteko lehia egotea eragingo du. Horrez gain, lehen hezkuntzako geletan, irakaskuntza artistikoan murrizketak gero eta nabariagoak izango dira, modu honetan garrantzia kenduz (Sumozas, 2010).

Beraz, aurreko paragrafoetan azpimarratu dugun moduan, aipatu beharra dago, egungo hezkuntza sisteman, musika egotea beharrezkoa dela kalitatezko hezkuntza bat eskaintzeko.

Touriñán eta Longueirak (2010) aipatzen duten bezala, jarduera artistikoak eta, zehazki, musikalak sustatzen dituen korronteak, eskoletan, hezkuntzaren kalitatea hobetzen laguntzen du, eskolaren eremuan arteek eta sormenak esperientzia axiologikoa adierazteko eta eraikitzeke duten funtzioa aitortuz. Azken finean, musika hizkuntza unibertsal bat da, mezu emozionalak transmititu, adierazi eta itzultzeko gai dena. Beraz, musika tresna pribilegiatua da gure ikaslearen eremura hurbiltzeko.

1.2. Musikaren garrantzia gaur egungo gizartean eta komunitatean baloreak bultzatzeko eta gizarte baketsuagoa eta inklusiboagoa.

Musika definitzeko aukera ezberdinak dauden arren, argi dago hizkuntza bat dela. Hori gutxi balitz, musika, pertsonen artean komunikatzeko baliabidea, hizkuntza unibertsal erraz eta, aldi berean, konplexua da. Hizkuntza horrek, gainera, sentimenduei dei egiten die, eta norbanako bakoitzaren, herri bakoitzaren baita gizarte bakoitzaren eguneroko bilakaeran dago. Eta hizkuntza orok bezala, hobeto ulertu eta gozatzeko, ikasia izan behar du, hau da: irakatsia. Eta musikaren irakaskuntza (eta, beraz, ikaskuntza) da gaur egun hona ekartzen gaituena, arduratzen gaituena eta kezkatzen gaituena (Gustems eta Calderón, 2016). Gainera, musika, berez, inklusiboa da, dimentsio intelektualak, sozialak eta afektiboak biltzen baititu, eta horrek tresna ezin hobe bihurtzen du proposatutako gizarte eta hezkuntza-eraldaketarako (Fernández-Carrion, 2011).

Era berean, musikak edozein arrazoiengatik (generoa, adina, soziala, ekonomikoa, kulturala, etab.) baztertutako pertsonak barne hartzeko tresna ahaltsua da. Kulturarteko eta sozio-kulturako prestakuntza (garapen pertsonala eta talde-lana barne) musika-maila guztietako musikarien eta profesionalen prestakuntzan, integratu beharko litzateke. Ildo berean, beste diziplina batzuetako langileek musikako prestakuntza jaso behar lukete, sektoreen arteko ikasketak errazteko. Gainera, askotan, beste esparru batzuetan dauden pertsonak ez diote beharrezko garrantzia ematen. Hori dela eta, oso komenigarria izango litzateke, modu batean edo bestean, musikarekin harremanetan egotea, haren balioa erabat hautemateko eta ulertzeko (Consejo Europeo de la Música, 2012).

Beraz, esandakoaren haritik, musika, baliabide pedagogiko gisa, haurraren prestakuntza integrala aberasten du, ez bakarrik bere prestakuntza-alderdiagatik, baita gizabanakoaren, bere nortasunaren garapen osasuntsuan egiten duen ekarpenagatik ere. Horrez gainera,

haurren alderdi intelektuala, sozio-afektiboa, psikomotorra, hazkunde pertsonala eta ohituen prestakuntzen garapenean eragina dauka (Conejo, 2012).

Aurreko guztiarekin lotuta, taldeko musika-praktikak, praktika positiboak eragiten dituenen, komunikazio-loturak sor ditzake eta gizabanakoen eta pertsona-taldeen arteko ulermena hobetu (Cabedo eta Diaz, 2016). Kokotsakik eta Hallamek (2007) berretsi dute, partaidetza sustatzen duten musika praktiken bidez inklusioa, kulturartekotasuna eta aniztasunaren onarpena bultzatu daitezkeela, ikasleen garapen musikala eta integraletik haratago doazela, eta kohesioa, autosufizientzia, gizarte-doikuntza eta jarrera positiboaren sustapena bultzatu ditzaketelako.

Gainera, kulturartekotasuna bultzatu dezake, bizikidetzaren, pertsonen arteko loturak eta errespetua sustatzen baititu. Bernabek (2015) proposatzen du kulturartekotasun hori kultura-aniztasunak balioak eta jarrerak trukatzeko elementu gisa eskaintzen dituen aukerei buruzko hausnarketa sakon moduan ulertzea. Horretarako, autoreak dio garrantzitsua izango dela musika-praktikak musikari eta entzule gisa parte-hartze etiko eta demokratikora bideratzea.

Hezkuntzak sartu behar du musika, kohesioa hobetzeko jardueren bidez elkarbizitza hobetzeko. Horretarako musika ikasi eta irakasteko prozesuak egokitu behar dira, guztiok parte ahal izateko eta musikaren bidez aurkitu, ikasi eta praktikatu, forma eta musika estiloak errespetatzen ditugun bitartean (Cabedo, 2014). Honetaz gainera, garrantzitsua izango da, ikasleen motibazioa aintzat hartzea. Motibazioa, ordea, dinamikoa dela eta ikasleen ikaskuntza-testuinguruen arabera alda daitezkeela (Pintrich et al., 2006). Arriagak eta Madariagak (2004) aipatzen dute, motibazioa ulertzeko garaian, irakasleen eta ikasleen artean ezartzen diren jarraibide interaktiboaren garrantzia. Ezinbestekoa da, egin beharreko zereginak erakargarritzat eta eskuragarritzat hartzea, eta ikasleen artean lan-giro ona sustatzea. Horretarako, garrantzitsua da ikasleek beren baliabide kognitiboak eta emozionalak erabil ditzaten jarduerak diseinatzea, beren helburuak lortzeko, ez bakarrik hezkuntzakoak, baita helburu pertsonalak ere (Winne eta Marx, 1989).

Bukatzeko, arestian esandako guztia aintzat hartuta, esan dezakegu, oro har, musika-hezkuntza balioetan oinarritutako hezkuntza dela: musika balio bat da, musikan balioak irakatsi, transmititu eta ikasi ahal dira eta musikarekin balioak aukeratzen ikasten da.

Musika-hezkuntza, beraz, balio bat eta balioak aukeratzeko ariketa bat da. Zera da, musikaren kultura-errealitatetik ondo zehaztutako esperientzia axiologikoa erabiltzeko eta gauzatzeko eremu egokia da (Touriñan eta Longueira, 2009).

1.3. Musika komunitarioa eta proiektu musiko-sozialak

1.3.1. Zer da?

Musika komunitarioaren kontzeptua zabala da, eta XX. mendeko azken hamarkadatan zehar, honen definizioa aldatzen eta moldatzen joan egin da, musika komunitarioa ezarri den lekuen ezaugarri eta haren aplikazio eremuaren arabera (Quintero, 2015).

Alde batetik, Quinterok (2015) esaten duenaren arabera, musika komunitarioaren barruan, esku-hartze sozialeko jarduera ugari biltzen dira. Jarduera horiek, beren ekintza testuinguru ez-konbentzionaletan hedatzen dute, eta, komunitate baztertuetara, gutxiengoetara, behartsuetara, baliabide gutxikoetara edo arriskuan daudenetara bideratuta daude. Gainera, kultura eta trebetasun desberdinak dituzten pertsonen eta kolektiboen arteko elkarrizketa modu sortzailean garatzea dute helburu. Bestetik, Higginsek (2012) dio kontzeptu horrek hainbat jarduera biltzen dituela, konplexuak, alderdi anitzekoak eta testuingurukoak, eta, beraz, zaila dela terminoa definizio bakar batean sintetizatzea.

Aurretik esandakoa kontuan hartuta, musika komunitarioak eta proiektu musikal sozialek, garapen soziala zein pertsonala garatzea dute helburu nagusitzat. Horretarako, kulturarako eta arteetarako borondatezko sarbidea eta parte-hartzea sustatzen da, aniztasunarekiko errespetu sakonarekin eta modu barneratzailean, betiere komunitateen eraldatzea bilatuz.

1.3.2. Zertan datza?

Orokorrean, arte komunitarioaren eta, horrekin batera, musika komunitarioaren egitearen helburu nagusia, berdinen arteko partaidetza sustatzea eta espazio berriak eraikitzean dago oinarrituta. Aipatutako espazioetan, sorkuntza, praktika eta banaketa artistikoa oinarritzat hartuta, pertsonen eta jendartearen bizitza hobetzera edo aukera berriak eskaintzera, bideratutako ekimenak gauzatzen dira. (Higgins, 2012). Modu honetan, musika komunitarioak hainbat diziplina barne hartzen ditu, hala nola musikoterapia, gizarte lana eta musika-hezkuntza, besteak beste. (Quintero, 2015).

Musika komunitarioa, hezkuntza ez-formalean oinarritzen bada ere, merezi du musika komunitarioaren kontzeptua eta musika-hezkuntza tradizionala bereizten dituzten zenbait bereizketa egitea. Adibidez, musika komunitarioaren ezaugarri nagusiak honako printzipio hauek dira (Quintero, 2015):

- Deszentralizazioa
- Irisgarritasuna
- Aukera berdintasuna
- Parte hartze aktiboa musika praktikoan.

Arestian esandakoaz gainera, musika komunitarioan, pertsonon bizitzetan eragina duten alderdi desberdinak landu egiten dira, besteak beste, garapen soziala, kultura eta arteak askatasunez eta modu parte-hartzailean gozatzea, aniztasuna modu barneratzailean errespetatuz, betiere komunitateak eraldatzea bilatuz (Higgins, 2012).

1.3.3. Nortzuk parte hartzen dute?

Gaur egun, badira musika komunitatean ikasteko proiektu musiko-sozial desberdinak. Proiektu hauetan parte hartzen duten pertsonen dagokionez, musika espezialistak eta gainontzeko parte hartzaileak dira.

Gauzak horrela, musika espezialistak gehienbat, hezitzaileak dira, eta testuinguru anitzetan mugitzen dira, musikarekin zerikusia duten jardura desberdinak eskaintzen, adibidez; zentro artistikoetan, eskoletan, espetxeetan, osasun-zentroetan, kultu-lekuetan, musika-jaialdietan, kaleetan eta komunitate-testuinguruen sorta zabal batean. Hauek, proiektuaren bideratzaileak direla esaten zaie, haien helburu nagusia ikuspegi desberdinak dituzten gizabanakoen arteko elkarriketa irekiak sustatzea da (Higgins, 2013).

Aipatutako espezialistak, irakaskuntza eta ikaskuntza-ikuspegi baten bidez, proiektu musiko-sozialetako parte hartzaileei, beren helburuak lortzeko elkarrekin egindako bidaia batean laguntzen dieten hainbat prozesu erabiltzen dituzte. Prozesu horietan, musika espezialistek edo bideratzaileek, parte-hartze aktiboa nabarmentzen dute, testuinguruarekiko sentikorra eta aukera-berdintasunean lan eginez (Higgins, 2013).

Beraz, horrela lan egiten duten musikariek, oro har, irakaskuntza eta ikaskuntza-giro formaleetatik kanpo lan egiten dute, eta talde-esperientzia paraleloak errazten dituzte curriculum-planik ez duten inguruneetan. Hala ere, bere lanak hezkuntza-rol erabakigarria du, plangintza egituratuaren bidez, parte-hartzaileek bizi diren munduarekin konektatzen duten bitartean beren potentzial musikala besarkatzeko aukera izan dezaten (Cabedo eta Díaz, 2016).

Bestetik, proiektu hauetan parte hartzen duten gainontzeko pertsonak, borondatezko parte hartzaileak dira. Zera da, bakoitzak bere kabuz, proiektuan parte hartzea erabaki egiten du. Horrez gainera, aipatutako parte hartzaileak, ez dute zertan musikari buruzko ezagutzarik izan behar. Garrantzitsuena, musika ikasteko eta gozatzeko gogoak izatea da, betiere errespetuz eta lan kooperatiboa sustatuz (Higgins, 2012).

Zalantzarik gabe, parte-hartze musikal komunitarioko hezkuntza-esperientzien artean, nazioarteko proiektuen artean ezagunena eta aitzindarietako bat Venezuelako Gazte eta Haur Orkestren eta Abesbatzen Sistema Nazionalea da, El Sistema izenekoa. 1975ean sortu zen eta gaur egun 120 gazte orkestra inguru, 60 haur orkestra, hainbat abesbatza eta 340.000 parte-hartzaile inguru ditu. Bere baseak mundu osoko 35 herrialde baino gehiagotan zabaldu dira. Espainian, Acción Social por la Música, Palau Vincles, DaLaNota, VOCES para la Conciencia y el Desarrollo Fundazioa, Xamfrà Fundazioa, Escuela Orkestra Elkartea, Mugarik Gabeko Musikari Solidarioak eta Etorkizuna Musikatan proiektuak barne hartzen dituen Musika Sozialaren Sarea sortu da (De la Torre eta Arriaga, 2022).

2. Helburuak

Lan honek bi helburu nagusi ditu:

1. Musika- eta gizarte-programetan parte hartzen duten ikasleen esperientzian sakontzea.
2. Programa horiek ikasleen bizitzan izan duten eragina eta inpaktua aztertzea.

Aipatutako bi helburuak betetzeko, proiektu musiko-sozial desberdinetan parte hartzen duten ikasle desberdinei elkarriketak egingo dira.

3. Metodologia

Egindako lana, ikuspegi kualitatibo batetik dago aztertuta, planteatutako errealitatea sakontasunarekin aztertzeko, sei pertsona desberdin elkarrizketatu dira. Elkarrizketatutakoek, hiru proiektu musiko-sozial desberdinetan parte hartzen dute.

Elkarrizketarako galderak prestatzeko momentuan, galdera sorta bat prestatu da, elkarrizketatuak proiektuan egindako jarduera desberdinak aintzat hartuta. Horrez gainera, elkarrizketa egiterako momentuan, elkarrizketatuak mutu geratzen zirenean, galderaren erantzuna errazteko asmoz, adibide desberdinak eskaini dira.

Elkarrizketak, zuzenean egin dira, hau da, modu presentzial batean, modu honetan, elkarrizketak egiten ziren bitartean, elkarrizketatuen baimenarekin, grabaketak egin ziren, gerora transkribatu ahal izateko (ikus, 1. eranskina).

Elkarrizketetako emaitzak ateratzeko eta datuak interpretatzeko orduan, orokorrean esandakoa jaso da, eta azkenik, ondorio edo ideia batzuk atera ahal izan dira esandakoaren arabera. Ateratako ideiak, hiru kategoria handitan banatu dira: sentimendu, emozio eta sentrazioak, proiektuan zehar ikasitakoa eta proiektuaren esanahia. Behin, elkarrizketatuek esandakoaren analisia egin ostean, atal edo dimentsio hauen barruan, beste azpikategoria batzuk egin dira.

4. Lanaren garapena

4.1. Proiektu musiko-sozialen testuinguruak

4.1.1. Musiquem! Maestre Canos Ikastetxea.

Musiquem! programak Castelloneko lehen hezkuntzako eskola batean garatzen hasi zen duela 4 urte, Maestre Canos ikastetxean, hain zuzen ere. Aipatutako eskola, berez kulturartekoa da, gizarte eta ekonomia bazterketa jasateko arriskuan dagoen biztanleria handia du eta, gainera, hiriko beste ikastetxe batzuekin alderatuta, ikastetxearen irudia hondatuta dago. Programak, praktika instrumental komunitarioa erabiltzen du, hari-igurtziko instrumentuak erabiliz, bibolinak eta biolontxeloak hain zuzen ere. Aipatutako instrumentuekin, zerbitzu-ikaskuntzako/ikasketa-zerbitzuko proiektuak garatzen dituzte, eskola komunitatearekin bat egiteko.

Musiquem! proiektua Maestre Canós ikastetxean egunero garatu egiten da, Lehen hezkuntzako maisu-maistren, tutoreen zein musika-espezialisten eta ikasgelara doazen bi musikari egoiliarren arteko elkarlanaren bidez. Irakasleri guztiak jarduera ezberdinetan partentzen arren, Musiquem! sesioak astean bi aldiz garatzen da, eskola-ordutegiaren barruan garatzen da eta, ondorioz, ikasle guztien parte-hartzea ahalbidetzen du. Programaren helburua da musika-hezkuntza erabiltzea komunikazioa, bizikidetzaren positiboa eta kulturen arteko ulermena garatzeko elementu gisa. Programaren diseinuak musika kontzertuak eta esku-hartze artistikoak egitean barne hartzen ditu. Hori dela eta, programan diseinatzen dituzten lan desberdinak hirugarren adineko zentroetan, osasun-zentroetan eta eskolatik gertu dauden egoitzetan erakusten dituzte. Horrez gainera, proiektua saiatu egiten da, ikasleen familiak bertan parte hartzea, esate baterako, programak eskaintzen dituen kontzertuetan.

4.1.2. Musiquem! El Censal Ikastetxea.

Ikasturte honetan Musiquem! Programa El Censal ikastetxean jarri da martxan. Ikastetxe honen testuingurua desberdina da. Hiriburuaren beste zonaldean dago, eta ikasleen jatorria uniformeagoa da, ez da bereziki kulturarteko. Ikastetxe honetan erabaki zen musika Musiquem! programa beste era batera bideratzea. Helburu nagusia komunikazioa eta bizikidetzaren positiboa ere bada, baina instrumentu ezberdinak erabiltzen ari dira: kitarra elektrikoak, baxuak, ukelele elektroakustikoak, bateria bat, bi teklatu, mikrofonoak eta nahasketa mahai bat. Kasu honetan astean ordu bat daukate. Maestre-Canós ikastetxeko bi artistak ere bideratzen dute klasea, baina hurbilketa metodologikoa ezberdina da, musika informalki printzipioak erabiltzen saiatzen ari dira. Ikastetxe honetan musika irakasle eta tutoreen inplikazioa eta laguntza ere badute.

4.1.3. Etorkizuna Musikatan

Etorkizuna Musikatan proiektua, Bilbon garatzen den programa musiko-sozial bat da. Programa, Ibaiondo barrutiko auzoetan bizi diren kultura desberdinetako haur eta nerabeei zuzenduta dago, haiekin integrazio eta dinamizazio sozio-erakunde lana gauzatzen da, urrutitako testuinguruetan eraldaketa soziala bultzatzen duten haur abesbatzak eta orkestrak eratuz.

Proiektua 2019ko martxoan jarri zen martxan, Venezuelak musikari talde batekin batera, eta eraldaketa soziala bilatzen du musikaren bidez. Gainera, Venezuelako Gazte eta Haur

Orkestren eta Abesbatzen Sistema Nazionala jasotzen eta balioztatzen du. Eskolaz kanpoko praktikekin lotuta dago, eta asteen bi saiotan antolatuta dago, instrumentu bereziak (bibolinak, biolontxeloak, kontrabaxua eta tronpeta) eta orkestra-entseguetarako hirugarren saio bat, bi ikastetxeetako ikasle guztiekin batera.

Proiektuaren helburua, musikaren bidez gizarte eta hezkuntza arloan egiten duen esku-hartzearekin, parte-hartzaileek zenbait balio garatu behar dituzte ;talde-lanean ikastea, gainontzekoak errespetatzea, diziplina, erantzukizuna, ikasketak, iraunkortasuna eta ahalegina lanean, gizartearen aldeko jokabideak... Horretarako, parte-hartzaileek, konpromiso pertsonalak eta komunitarioak hartu behar dituzte, kulturen arteko bizikidetzaren eta inklusioa sustatuz. Era berean, autoestimua eta gizarte-aintzatespena areagotu behar dira, musika-sentsibiltatea, sormena eta arte-gaitasunak garatuz.

Bukatzeko, proiektuan erabiltzen den metodologiari dagokionez, guztion parte hartzea sustatzeko dago pentsatuta. Zera da, giza garapena zein garapen hezigarria lantzeko, baita praktika instrumentala ahalok eta gehien lantzeko. Beraz, metodologia honen bidez, bertan dauden pertsonak, ez dira soilik hezten musika kontzertuak emateko, baizik eta musikaren osotasunean gozatzeko.

4.2. Parte hartzaileak

Musikaren garrantziaz jabetzeko eta, zehazki, proiektu musiko-sozialetan parte hartzearen eraginaren berri jakiteko, 6 elkarrizketa desberdin gauzatu dira. Elkarrizketatuak aukeratzeko, kontuan hartu diren irizpideak, adin desberdinetako ikasleak izatea baita proiektuan daramaten denbora izan da.

Ondoren aurkezten den taula (ikus, 1. taula) elkarrizketatuen profilei dagokie, bertan agertzen diren izenak fikziozkoak izanik.

1. taula

Elkarrizketatuen Datuak

Izena	Adina	Proiektuaren izena	Denbora proiektuan
Markel	16 urte	Etorkizuna Musikatan	4-5 urte
Uxue	10 urte	Etorkizuna Musikatan	3 urte
Maria	12 urte	Musiquem. El Censal Ikastetxea	Aurten hasi dira
Aritz	11 urte	Musiquem. El Censal Ikastetxea	Aurten hasi dira
Naia	12 urte	Musiquem Colegio Maestre Canós	2-3 urte
Mikel	12 urte	Musiquem Colegio Maestre Canós	3 urte

Oharra: Iturria: Nik eginda, 2022.

4.3. Instrumentua

Ikerketa hau egiteko elkarrizketa bat erabili da. Elkarrizketa egiteko gidoi bat egin zen, galderak hiru dimentsio edo kategoria desberdinetan sailkatuta: sentimendu, emozio eta sentrazioak, proiektuan zehar ikasitakoa eta proiektuaren esanahia. Elkarrizketak presentzialak izan ziren, eta parte hartzaileekin kontaktatu zen proiektu bakoitzaren arduradunekin hitz egin ondoren.

4.4. Elkarrizketen analisia eta interpretazioa

Ondorengo paragrafoetan, burututako elkarrizketak aztertu ostean, ateratako emaitzak azalduko dira. Horretarako, kasu batzuetan, elkarrizketatuak esandakoari erreferentzia zuzena egingo diot. Aldiz, beste batzuetan, zenbait elkarrizketatuk esandakoak kontuan hartuta, ateratako ideiak agertuko dira. Hori dela eta, emaitzak parte-hartzaileen zuzeneko testigantzekin ilustratzen dira, ebidentziak emateko, babesa emateko eta egindako interpretazioak balioztatzeke (Alhojailan, 2012).

